

TREBETASUNAK ETA OHITURAK HOBETZEKO LAGUNTZA SOZIO-EDUKATIBOA ETA PSIKOSOZIALA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Mendekotasuna duen 65+ pertsona > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomia izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa](#).

Norentzat

Mendekotasun-arriskuan daudenak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Mendekotasun arriskuagatik **hezkuntza-laguntza eta/edo laguntza psikosoziala** behar izatea.

Zertan datza?

Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak laguntza eskaintzen du trebetasun sozialak garatzeko, motibazioa handitzeko edo harreman pertsonalak hobetzeko, autonomia lortzeko edo norberaren burua zaintzeko ([1.3 fitxa](#)). Laguntza hau eskaini daiteke bai etxe barruan, bai auzoan/inguruan, eta banakakoa, familiakoa edo taldekoka izan daiteke.

Norentzat?

Edozein adinetako pertsonak, **mendekotasun-arriskuan** daudenak (mendekotasuna baloratzeko baremoan 23ko edo 24ko puntuazioa), eta laguntza behar dutenak beren motibazioa, gizarte-harremanak edo trebetasun pertsonalak hobetzeko.

Zein da zerbitzuaren kostua?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

- **Laguntza psikosoziala behar izatea**, mendekotasun-arriskuagatik.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)